

# XENPELAR IL ZANEKO EUN-URTE-URRENA (ERRIMADUN ITZALDIA)

POR J. M. LEKUONA

## — 1 —

Eun urte buruan, Errenderiarrok, eun urte buruan Xenpelar:  
Zuen oroitzapenak bertsolari gotor, danon goguagarri dakar.  
Xenpelar aundia len da oraingoetan bertsolariarik onena:  
Ooarsa zarreko kultura-zugaitzak sortarazitako aiena.  
Xenpelarren kantak sustraiz astindu du luze ta zabal Euskalerrri.  
Doñuz eta itzez zer-pentsa, nun-goza erri-arimari ezarri.  
Errenderiarrok, ohorez zaudete: goraltzen zaituzte lengoak.  
Eun urte buruan Xenpelar bizirik daramate zuen gogoak.

## — 2 —

San Markos egiko bertso gordairuan, toki argitsuan zan jaio:  
Kristautzean, berriz, erosotasunez Oartzungo elizan bataio.  
Lezo eta Pasai, Alza, Errenderi, Astigarraga ta Oartzun:  
Xenpelárrek zion jaio zan lurrari, «Ama-lur» zarrari erantzun.  
Itsasoa sakon, arrobiak gogor, olaña zarretako sua:  
Oarso-gizarte, bizi-leku argi, Xenpelarren indar osua.  
Ba-du Errenderik bertso alorrean asmamen berrizko abea:  
Eman du bertsoa, lurraren emaitza, nola udaberriak lorea.

## — 3 —

Bertsolari zarrak: Zapirain anaiak, Txirrita, Fanderi, Telleri...  
Errenderik ainbat bertso eman duen erriak, ez daude beste bi.  
Oietan Xenpelar, maisua, auresku: ebakitzen ditu bideak.  
Gipuzkoa osoan berak jartzen ditu bertsolarietzako legeak.  
Doai zoragarri, artzai-kulturazko ele biziaren ezitia.  
Gaur ezer ba-gera, sena jator oni ez al-diogu zor guztia?  
Errenderiarrok: Xenpelarren kantuz, Bizkai, Nafar da Gipuzkoak.  
Egin du par gozo, bizitu fedea, ixuri ere bai malkoak.

## — 4 —

Umoretasunez, Xenpelar-umora begira gozoko ta fiña.  
Ez trakeskerian, baizik espirituz, irri aukerakotz egiña.  
«Mutil zarrarenak», «Betroi bati» eta «Prantzes bati buruz»  
[lekuko:  
Iñoiz bertso auek euskerak dirauño ez dira sekulan aztuko.  
Gizaki bera du, azal eta mami, gizon da emakume irri-gai.  
Gezur audienak trebe asmatuak: itsasoa erre, itsuak ikusi  
[ere bai...  
Errenderiarrok: Orixen iritziz Euskalerrri goiko naiz beko,  
Ez da iñun egin bertso sorketa bat «Mutil zar» kantaren pareko.

## — 5 —

Gero gizonaren barru-azpildurak argitaratutzen ba-daki:  
Begien tristura, zarraren biotza, maiz aiaten ditu egoki.  
Emakumezkoen jantzi-zeatztasun, apainduri eta txukuna.  
Arritzekoa da Xenpelar erneak kantaz azalduten diguna.  
Ageda liraña. Aszensio ermitan promes egindako neskatxak.  
Gazi-geza, antzo, irri minduratsuz, ezkondu-minduen ametsak.  
Giza-bizitzaren ezagule sakon, talentu erneko begia.  
Berak eman digu giza-irudiekin gure barrunbeko egia.

## — 6 —

Tenplu santuaren oiartzuna gendun berak mamitua bertsoan.  
Elizan entzuna, erri-arnas bidez obeagotzen du askotan.  
Azken-juizioan, ikustez, esatez, igarle bat degu iduriz.  
Kristau goi-mallako sentipenean; da eliz-gizon bat jakinduriz.  
Berriotxoren illeta oiua; Santa Barbaren martiritza.  
Konfesiokoak; Pasio santua. Aita San Joseren bizitza.  
Arritutzen gaitu gizon-ezjakiñak orla ematea berria.  
Ez dezagun aztu: erri-jakinduri azalpen da bertsolaria.

## — 7 —

Xenpelar-garaiko gizarte-giroa; industri-langintza jaiotzen.  
Norteko trenakin olaña-ugoldeak gero ta indartsuago iyotzen.  
Giza azi-miñak dituan kezka asko Xenpelarrekin agertzen ditu.  
Lehen-emigrante, oitura-aldaketak: etzan ixillikan gelditu.  
Baserriko umea bera izanikan, fabrika-langille egiñik.  
Alare antziñako lurraren kultura ark ez dauka gorde eziñik.  
Erriaren itza duan bertsolari; gizarte arazoan abotsa.  
Bera izan degu ezker-eskubiko kontzientzi argi, zorrotza.

## — 8 —

Musika alorrean, melodi-sortzalle. Ba-du berezko etorria.  
Iparragirrekin gertatu zitzaion pasadizu arrigarria.  
Errenderiarrak ezin omen zuan doñu berrietan abestu.  
Ekin zion eta laister omen zitun zalantza guztiak saiestu.  
Saiorik geienak doñu-berri dute, aukera egoki egiñaz.  
Gaia alaitan argi; illunetan illun, erri arimari atsegiñaz.  
Puntuz aberatsa ba-da egituran, ez da gutxiago musikan.  
Ez degu arkitzen bere lan osoan aberastasuna baizikan.

## — 9 —

Gero Euskalerrri, bere erri maite, gerrate artean jauzia:  
Kantari trebea, bertso berrietan nundikan emango bizia.  
Iru probintziak, iru beso-gurutz «lengo legerikan ez utzi».  
«Oieri firme eutsi, naiz anka bana autsi,  
Jaioko dira berriak. Gu gere Euskal-erriak»...  
Ontan ere degu Xenpelar aundia bide-erakusle trebea.  
Itxaropen dauka etorkizunean; ez da esperantzarik gabea.  
Eun urte buruan, erria dala ta, aren ohoretan iru itz...  
Gaurkoa ikusita, zer kantatuko ariz, Xenpelar bizi izan balitz!

## — 10 —

Gero gerratea: pake zalea da Errenderiko seme jator.  
Nundik zentzunean euskaldunak jarri, lege berri batean dator.  
Ez du nai gerrarik, ez okasiorik, ez maliziarik iñola.  
Jainkoarena da, Arena bakarrik, gure zañetako odola.  
Gabilta umildadez, gabilta errespetuz, begirune garbiz elkarri.  
Etorkizunean, egun-senti antzo, beste egoera bat ekarri.  
Errenderiarrok: ikaskizun eder Xenpelar zarraren kantua.  
Arki gaitezela denok pake zale, Jaunari ematean kontua.

## — 11 —

Oroitu, atzenekoz, Elorrio-plazan, Euskal martiri bat goratzen.  
Bizkai kristaudian asia baigendun santu ospetsu bat loratzen.  
Eriotz atarian eraso zitzaion baztanga gaiztoaren jasa.  
Madalen kalean zerura zitzaigun emanikan atzen-arnasa.  
Gizon gaztea zan: gure iduriko kantu lanerako asikin.  
Amestu oi degu zer egin zezakean arek irurogei urtekin.  
Errenderi-lurrak, len sortu zuanak, berriro artu zun altzoan.  
Bañan biziko da, euskerak dirauño, bertso ezilkorren mintzoan.

## — 12 —

Errenderiarrok: eun urte buruan Xenpelar dator deadarrez.  
Euskalerrri dei luze, gartsu bat esnatzeko eman bearrez.  
Baña era berean zuek zaituztegu urte-urrenez ohoretan.  
Bertso erakusle au jaioa baitegu Errenderi-soro onetan.  
Xenpelar argia, aurpegiz beltzaran, adimen indarrez zorrotza.  
Irudimen bizi, esaundaz aberats, itsas zabal antzo biotza.  
Eun urte-urrenean Euskalerrri osoak bi gauz ditu goguagarri:  
Gizon bat, erri bat. Zorion bieri: Xenpelar eta Errenderi.

